


CUADERNOS

de
Etnología y Etnografía
de Navarra

ENERO - DICIEMBRE 2011

AÑO XLIII - Nº 86
SEPARATA



José Miguel de Barandiaran
Fundazioa

JOSÉ M^a VÉLEZ DE MENDIZABAL

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa*

JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA**

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa 1988an sortu zen, On Jose Migel beraren eragin zuzenaz. Eusko Ikaskuntzaren lehendakaria zen garai hartan eta iruditu zitzaion, bere bizitza osoan osaturiko altxor kulturala denboran hoberen zaindu eta hedatu zezakeen formula erakunde bat abian jartzea zela.

Hala egin zen eta Fundazioari aipatu urte hartako ekainean eman zitzaion argi berdea, Barandiaran bera eta Eusko Ikaskuntza izan zirelarik sortzaileak. Fundazioak altxor preziatu bat zuen kudeatzeko eta hori On Jose Migelen beraren mandatua zen, bere irudia, bere obra, bere legatua zaintzekoa.

Fundazioaren helburua, oro har, On Jose Migelen lan osoari ahalik eta babesik zentzuzkoena ematea zen, etorkizunak ekar zitzakeen gora behera guztien gainetik. Hamarkadetako obra erraldoia modurik egokienean erabili behar zen, euskal kulturak emandako langilerik handientzat hartutakoaren erdiespenen balioa geroko belaunaldiek ere ezagutu zezaten. Kultura gutxi aldarrikatu ahal izango dute, Barandiaranek utzitako legatuaren modukorik, kontzientzia humanistikotik gidatutako erdiespen zientifikoz beterikoa.

Barandiaran lider bat izan zen, talde egiten jakin izan zuena. Inoiz ez zuen beste inork hark burututako ekintzarik gauzatu, hain zabala eta lan-kidetzarako hain irekia. Gasteizko Apaizgaitegiko denboretatik ehunka izan ziren On Jose Migelen jakintzatik zuzen-zuzenean edan zutenak. Eta elkar aritze horrek sortutako jario etengabeak ahalbidetu zuen ataundarraren lan erraldoiaren etorkizunerako proiektzioa.

* <http://www.barandiaranfundazioa.com>

** Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko Lehendakaria.

Fundazioaren sortze idazkiaren hizki eta izpirituan irakur zitezkeen, besteak beste, honelako egitasmoak: Jose Migel Barandiaranen bizitza, pentsamendua eta zientzia eta kulturari egindako ekarpena aztertzea; haren obra eremu guztietan zabaltzea; haren zientzia produkzio osoa biltzea, hala argitaratua nola argitaragabea; On Jose Migelen obraren edizio kritiko arretatsua egitea; eta Barandiaranek abiatu eta gauzatutako ikerkuntza lana jarraitzea, bereziki historiaurre, arkeologia, antropologia eta etnografia alorretan, beken bidez.

Hala egin da orain arte, Fundazioak eduki ahal izan dituen bitartekoak baliatuta. Ez da lantegi samurra izan, eta Fundazioak une gazi-gozaok bizi izan ditu; une zailak, hain zuzen, On Jose Migelek erakundea sortzean eki-din nahi izan zituen arrazoiengatik heldu ziren: bere legatuari buruzko inoren aldeko patrimonializaketa.

Hasierako Patronatua aldatu egin zen 1995ean, eta ordudanik hego Euskal Herriko erakunde publikoak daude ordezkaturita Zuzendaritza Batzordean. Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza, euskal Diputazioak eta Ataungo Udalak ordezkari bana daukate Fundazioaren goi gobernu-organon. Fundazioaren lehendakaritza zein idazkaritza, estatutuen arabera, Eusko Ikaskuntzak izendaturiko lau patronoetariko bi kiderengan geratzen da. Patronatuak beste lau kiderekin osa daiteke, azken horiek beren merituengatik eta On Jose Migelen obrarekin duten kidetasunarengatik gainerrako patrono kideek hautatuta, egokia dela uste izanez gero.

Fundazioaren agerkariak dira erakundearen zutaberik garrantzitsuenetakoa bat. Horren aldetik, Barandiaranek berak 1921ean sortu eta Eusko Ikaskuntzak 1988ra arte editatutako *Eusko Folklore Urtekaria* dugu funtsezko lan lerro bat; halaber, beste bi bilduma ditu, bata *Sara Bilduma* izeneko, Barandiaranen beraren materialak edo harekin zerikusia dutenak biltzen dituen. Haren katalogoan nabarmentzekoa da On Jose Migelen eguneroko pertsonal guztien edizio kritikoa, hirurogeita hamabost urte luzez euskal kulturaren hedapen eta suspertze lanetan aritu zen gizonaren bizitza-ibilbide ikaragarri aberatsa azaltzen dutenak; hirugarrena, berriz, Arkeologia eta Etnologia jakintza gaitan bi urtean behin Fundazioak ematen duen bekarekin sarituriko ikerketak argitaratzen dituen *Barandiaran Bilduma* da.

Fundazioak 2010ean, barne hausnarketa baten ondorioz, datozen lau urtetarako Plan Estrategikoa burutu zuen, eta lehentasunak markatu zituen aurrerantzean jorratu beharko direnak. Horien artean nabarmentzen dira: Fundazioaren beraren ondare materiala gorde, zaindu eta ezagutaraztea; Jose Migel Barandiaran giza-balioak eta irudia zabaltzea; orain arteko argitalpenei eustea, indartuz ahal den heinean; baliabide teknologiko berrien aukera baliatuz Barandiaran Bekari ahalik eta hedapenik handiena ematea; eta Ataunen garatutako Jose Migel Barandiaran Museoarekin elkarlana bultzatzea.

Jose Migel Barandiaran Fundazioak Ataungo Sara Etxean du egoitza nagusia, hain zuzen On Jose Migelek erbestetik itzultzean eraikitakoan, eta bertatik irradiatzen du bere zeregina.

Aurten, Barandiaran gure artetik desagertu zela hogeitaz betetzen direnean, Fundazioak uste du inoiz baino beharrezkoa dela ataundar unibertsalaren gaineko hausnarketa, elkar bizikidetzarako gaurkotasan handiko

erakusleak eskain baititzake. Euskal gizartearen bilakaera gero eta sakonagoan, On Jose Migelen lan zientifikoez gain, Barandiaranek bizitza osoan defendatu eta aldarrikatutako giza-balioek garrantzi berezia hartzen dute. Eta Fundazioak oinarri horretatik egiten du aurrera, euskal kulturaren sustatzailerik funtsezkoena den pertsonaren apustu erabakigarria Euskal Herriko bazter guztietan ezagutarazteko.

JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL
2011-06-28

Fundación José Miguel de Barandiaran*

JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA**

La Fundación José Miguel de Barandiaran nació el año 1988, por iniciativa expresa del propio don José Miguel. Presidente en aquellas fechas de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, creyó oportuno crear una entidad dedicada a salvaguardar y divulgar lo más significativo de su importante producción cultural.

Así se hizo y la Fundación que lleva su nombre se puso en marcha en junio del citado año, siendo el mismo Barandiarán y Eusko Ikaskuntza sus fundadores. La nueva entidad tenía como reto el administrar un preciado tesoro, que no era otro que el deseo de don José Miguel de preservar su ingente obra.

El objeto de la Fundación, en grandes líneas, se basaba en propiciar la cobertura más correcta a la labor de don José Miguel, por encima de todas las vicisitudes que pudieran darse en el futuro. Era necesario, para conocimiento de generaciones futuras, dar un tratamiento muy especial al legado de décadas de trabajo, llevado a cabo por quien estaba considerado como el representante más significativo de la cultura vasca. Pocas culturas podrán presumir de personas que hayan sabido crear alrededor de ellas legados como el que nos dejó Barandiarán, pleno de logros científicos magníficamente orientados desde una conciencia humanística.

Barandiarán fue un líder que supo hacer equipo. Nunca nadie antes había desarrollado una actividad cultural, tan extensa y abierta a la participación. Desde sus tiempos en el Seminario de Vitoria-Gasteiz, fueron cientos las personas que directamente bebieron de la sabiduría de don José Miguel. Y ese flujo constante de interrelación personal es lo que propició la proyección hacia el futuro de la ingente labor llevada a cabo por el ataudarra.

* Más información sobre la Fundación Jose Miguel de Barandiaran:
<http://www.barandiaranfundazioa.com>

**Presidente de la Fundación José Miguel de Barandiarán.

Entre los objetivos, que en la letra y el espíritu de la escritura de constitución de la Fundación se podían entrever, destacaban: investigar la vida de D. José Miguel de Barandiarán, su pensamiento y aportación a la ciencia y a la cultura; divulgar su obra a todos los ámbitos; recoger su producción científica tanto publicada como inédita; promover una cuidada edición crítica de su obra; y continuar la labor investigadora iniciada y proseguida por D. José Miguel de Barandiarán, principalmente en los campos de la prehistoria, arqueología, antropología y etnografía, mediante becas de investigación.

Así se ha hecho hasta la fecha, utilizando la Fundación todos los recursos que le han sido posibles. No ha sido empresa fácil y la Fundación ha vivido momentos agrídulces; los difíciles, precisamente, como consecuencia de aquello que don José Miguel trató de evitar con la creación de la entidad: la patrimonialización unilateral de su legado.

La constitución inicial del Patronato cambió en 1955, y desde entonces están representadas en el mismo entidades públicas de Euskal Herria. El Gobierno de Navarra, el Gobierno Vasco, las tres Diputaciones vascas y el Ayuntamiento de Ataun tienen su sitio en el máximo órgano de decisión de la Fundación. La presidencia y secretaría de la misma está reservadas por estatutos, a dos de los cuatro miembros elegidos para el Patronato por Eusko Ikaskuntza. Además, pueden ser nombrados otros cuatro patronos individuales, elegidos por el resto de patronos entre personalidades que por sus méritos y afinidad estén relacionados con la obra de don José Miguel.

Una de las realizaciones más sobresalientes de la Fundación son sus publicaciones. Destaca el *Anuario de Eusko Folklore*, creado por Barandiarán en 1921, y publicado y gestionado hasta 1988 por Eusko Ikaskuntza. Así mismo, sobresale la *Colección Sara*, que recoge materiales del propio Barandiarán y otros. Es de resaltar en esta colección la edición crítica de los diarios personales de don José Miguel, todo un espectacular recorrido a través de setenta y cinco años de vida dedicados en cuerpo y alma a revitalizar y divulgar la cultura vasca. La tercera línea interesante de divulgación es la *Colección Barandiarán*, que recoge los trabajos de investigación llevados a cabo cada dos años a través de la beca que lleva el nombre del fundador.

En 2010, la Fundación llevó a cabo una reflexión interna que condujo a la elaboración del Plan Estratégico para los cuatro próximos años, marcándose las líneas preferentes de trabajo. Entre ellas se puso énfasis en los siguientes apartados: salvaguardar y dar a conocer el patrimonio material de la Fundación; divulgar los valores humanos y la figura de don José Miguel; mantener y mejorar las actuales líneas de publicaciones; aprovechando las tecnologías de difusión, dar mayor cobertura a la Beca Barandiarán; e impulsar el trabajo de colaboración con el Museo Barandiarán de Ataun.

La Fundación José Miguel de Barandiarán tiene su sede en Sara-Etxea, la casa que don José Miguel a la vuelta del exilio forzoso erigió en su pueblo natal de Ataun, y desde allí irradia su actividad.

Al cumplirse en 2011 veinte años de la muerte de don José Miguel, la Fundación cree necesaria más que nunca una profunda reflexión sobre la aportación del ataudarra universal al acervo cultural y humano de nuestra sociedad. En el proceso de cambio profundo y continuo en que vivi-

mos, se considera de gran importancia reivindicar e impulsar, no ya sólo los logros científicos de don José Miguel, sino sobre todo los valores humanos que Barandiarán defendió y promulgó durante toda su vida. La Fundación trabaja sobre esas bases para dar a conocer en todos los rincones de Euskal Herria la apuesta decidida de quien fue el pilar de la cultura vasca.

JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL
28-06-2011

JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA

Arabako Aramaion jaioa 1949ko irailaren 27an. Donostiako ESTE-ren Enpresa Zientzietako Lizenziatua (1972) eta Deustuko Unibertsitatearen Ekonomia Lizenziatua (1979).

Zenbait enpresatan lan egin ondoren 1975ean Arrasateko Unión Cerrajera S.A-ra igaro zen eta bertako Zuzendari izendatu zuten 1987an.

Eusko Jaurlaritzaren lehen Kultura Sailburuordea izan zen (1983-1985), Euskararen Aholku Batzordeko kidea (1983), Euskaltzaindikoko Euskaltzain Urgazlea (1983), Euskal Idazleen Elkartearen sortzaileetariko bat eta lehen Idazkaria (1981), Euskal Idazleen Elkartearen Lehendakaria (1985-1989), EHAE-RSBAPko kidea (1988), Aramaioko Seme Kuttuna (1998).

Eusko Ikaskuntzaren Zuzendari Kudeatzailea izan da (1994-2010) Egun aurre-jubilatuta dago. Jose Migel Barandiaran Fundazioko lehendakaria da 2010etik.

“Zeruko Argia” aldizkarian hasi zen publikatzen bere artikuluak 1974an, Mendiaga izenordearekin, eta ordudunik Euskal Herriko ia-ia aldizkari eta egunkari guztietan idatzi ditu, baita kanpoko batzuetan ere bai. Ehunka artikulu argitaratu ditu, gehien bat euskal kulturari buruz.

Irun Hiriarren 1976an “Epaia” bere idazlan laburrarekin bigarren saria eskuratu zuen.

Harrez geroztik honako liburu hauek publikatu ditu:

Sebero Altube (1979), *Iokin Zaitegi* (1981), *Pedro I de Barrutia* (1983), *Zeu zara, Carmen* (1984), *Laionepan kantari* (1984), *Euskal Idazleen Katalogoa* (1987) *Amuarrantza* (1987), *Sixties* (1988), *Gure aitaren etxea* (1988), Eduardo Chillidarekin lankidetzan; *Yebuda* (1992), *Moskuko Gereziak* (1995), *Gerardo López de Gereñu* (1995), *Nire hautzaroko Arrasate* (1995), *Gaizka Barandiaran* (1997), *Samurai berria* (1998), *Mende laurdenean* (1999); *Maalako errebala* (2000), *Bizi izan juat* (2000); *Sebero Altube* (2001) *José Mari Azkarraga Mozo “Lurgorri”, bere bizitza eta idazlanak* (2003), *Aramaio eta Arrasate* (2003), *Ullibarri Ganboa* (2005), *Juan Garmendia Larrañaga. Solasean* (2005), *Jose Luis Iñarra. Arrasateko erretorea* (2006), *Ama Cerrajera* (2007), *Sabin Salaberri* (2008), *Badok 13* (2008), *1949 urtea, Arrasate eta mundua* (2009), *Odon Apraiz* (2010), *“Etorri nintzen bezala, banoa”* (2010).

Bestalde, antzerkirako lan bereziak idatzi ditu. *“Eskuak elkarri”* (2004an antzeztua), *“Iragana iragan”* (2010an antzeztua) Eta egokitu zuen Barrutiaren *“Actto para la Nochebuena”* (2006 eta 2007an antzeztua).

“Arrasate Press” y “Arrasate Telebista” ren gisako proiektuetan parte hartu zuen hastapenetatik. Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa eta Euskomedia Fundazioa sorrarazi zituen 2001ean. Eusko Ikaskuntzaren Euskonews aldizkari elektronikoaren sortzailea izan zen 1998an eta egun horren zuzendaria da.

2010-05-02